

## **05/06 IRIZPENA**

Lontxo Oihartzabal jn.  
Javier Del Campo jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Pilar Ramírez and.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Otxoa jn.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2005eko apirilaren 27an egindako bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Diseinu Grafikoaren lanbide arlorako biltzen den Argazkigintza Artistikoaren alorreko Arte Plastiko eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari Tituluari dagokion Goi Mailako Heziketa Zikloko curriculuma zehazten duen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.  
Idazkari Teknikoa.

## **SARRERA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion eskumen eremuko lurralderako, Diseinu Grafikoaren lanbide arlorako biltzen den Argazkigintza Artistikoaren alorreko Arte Plastiko eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari Tituluari dagokion Goi Mailako Heziketa Zikloko curriculuma zehazten duen dekretu proiektua, kasuan kasuko aginduzko txostena eman dezan.

Halaber, helarazi dira Ikasketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaritzak emandako txostena, eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren memoria.

## **AURREKARIAK:**

Abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoak, I. Tituluan jasotzen ditu Arte Plastiko eta Diseinuko Irakaskuntzak, araubide bereziko eskola-irakaskuntzetako Arte Irakaskuntzen barnean.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren Bigarren Tituluak ezarri du Arte Plastikoetan eta Diseinuan sartzen direla

arte aplikatuekin, lanbide artistikoekin, diseinuarekin (modalitate eta maila guztietan) eta kultura-ondasunen kontserbazio eta berriztapenarekin zerikusia daukaten ikasketa guztiak. Bestalde, legeak dioenez, irakaskuntza hauek moduluen bidezko heziketa zikloetan antolatuko dira.

Maiatzaren 7ko 676/1993 Errege Dekretuak (EBO 93/05/22) Tituluei buruzko jarraibide orokorrak eta dagozkien Lanbide Heziketako gutxieneko irakaskuntzak zehazten ditu eta Bosgarren Xedapen Gehigarrian xedatzen du Arte Plastiko eta Diseinuko irakaskuntzak heziketa zikloetan antolatuko direla

Irailaren 9ko 1843/1994 Errege Dekretuak Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikarien tituluak ezarri ditu. Irailaren 1eko 1456/1995 Errege Dekretuak, Diseinu Grafikoaren lanbide arlora biltzen den Argazkigintza Artistikoaren alorreko Arte Plastiko eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari Titulua eta hari dagozkion gutxieneko irakaskuntzak ezarri ditu, besteak beste

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Lege Organikoak 8. artikuluan zehazten duenez, hezkuntza sistemako maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate bakoitzeko helburuen, edukien, pedagogia metodoen eta ebaluazio irizpideen multzoa izango da curriculum.

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Lege Organikoaren 8. artikuluko 3. atalaren arabera, hezkuntza Administrazioei dagokie hezkuntza sistemako maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate guztietako curriculum finkatzea, eta honek irakaskuntza komunak barnean hartu beharko ditu bere terminoetan.

## **EDUKIA**

Dekretu proiektu honek 13 artikulua, azken xedapen bi eta eranskin bi dauzka.

1. artikulua Argazkigintza Artistikoaren alorreko Arte Plastiko eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari Titulari dagokion curriculum ezartzen du eta 2. artikulua aplikazio eremua zehazten du.

3. artikulua irakaskuntza hauen berariazko xedea zehazten du eta 4. artikulua berariazko helburuak. 5. artikulua curriculum kontzeptua definitzen du. 6. artikulua irakaskuntzok modulua antolatuko direla dio. 7. artikulua prestakuntza praktikoaren

faseko ezaugarri orokorrak zehazten ditu. 8. artikulua azken proiektu bat egin behar dela defendatzen du eta 9. artikulua irakaskuntza hauek ebaluatzeko irizpide orokorrak finkatzen ditu.

10. artikulua ziklo honetarako sarbidea zehazten du ikasketa-baldintzak betetzen dituztenentzat, 11. artikulua sarbide probatik salbuetsita nor dagoen zehazten du eta 12. artikulua ikasketa-baldintzarik gabeko sarbideari dagokio. 13. artikulua zehazten duenez, Sailburuaren Agindu bidez arautuko dira plaza erreserbaren portzentajea, bai sarbide probari dagokionean bai salbuetsitako kasuei dagokienean.

Azken xedapenak arautegi garapena baimentzen du eta araua indarrean noiz sartzen den zehazten du.

I. Eranskinak Diseinu Grafikoaren lanbide arlora biltzen den Argazkigintza Artistikoaren alorreko Arte Plastiko eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari Tituluari dagokion Goi Mailako Heziketa Zikloko curriculumak jasotzen du.

II. Eranskinak, prestakuntza praktikoaren faseko baldintzak, helburuak, jarraipena, ebaluazioa eta korrespondentzia finkatzen ditu. Beste alde batetik, garapen faseetako helburuak, epaimahaien izendapena eta azken proiektuaren ebaluazioa jasotzen ditu.

## **BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Dekretu honen xede nagusia, Diseinu Grafikoaren lanbide arlora biltzen den Argazkigintza alorreko Arte Plastiko eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari Tituluari dagokion Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloko curriculumak finkatzea da.

Berriki, Batzorde Iraunkor honek txostenak eman ditu honakoei buruz: Autoedizio, Ilustrazio, Publizitate Grafiko eta Arte Plastiko eta Proiektu eta Obretako Zuzendaritza arloetako Diseinuko Goi Mailako Teknikari Tituluari dagokion Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloko curriculumak, eta 2004ko abenduaren 27, 28 eta 29an eta 2005eko urtarrilaren 5ean eman ditu argitara.

Dekretu honek bere artikuluetan, oinarrizko ezaugarriak jasotzen ditu irakaskuntza hauen antolamenduaz, prestakuntza praktikoaren faseaz, ebaluazioaz eta sarbide eraz. Bestalde, eranskinetan, gutxienezko irakaskuntzei buruzko Errege Dekretuek ezarritako gutxienezko irakaskuntzak jasotzen dituen curriculumak garatzen da eta gure erki-degoari dagokion gainerako curriculumak garatzen da.

Halaber, administrazio bakoitzaren eskumenekoak diren beste gai batzuk ere garatzen dira, hala nola Prestakuntza Praktikoaren Fasea, II. Eranskinean arautzen dena, eta Azken proiektua egiteko eta ebaluatzeko prozedura.

Akats txiki bat aurkitu dugu I. Eranskinean, 7. atalean. Eduki progresiboetako moduluak, 2. ikasturteari dagokion zutabearen, hau da, adierazpen plastikoa: Argazkigintza dioen tokian II zenbakia erantsi behar da.

Hori guztia aintzat harturik, eta oinarrizko araua errespetatzen dela, proposaturiko garapena eskaini nahi den heziketari egokitzen zaiola eta garapen hori behar bezala formulaturik dagoela kontuan izanik, egokitzat jotzen dugu helarazi zaigun Dekretu proiektua.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2005eko apirilaren 27an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik : Eva Blanco

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Sinaturik : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.